

ONDAREARI BEGIRA FILM LABUR DOKUMENTAL LEHIAKETA

OINARRIAK 2022

DEIALDIAREN HELBURUAK

PARTE HARTZAILEAK

1. Dokumental film labur lehiaketa honen parte-hartzea 18 urtetik gorako edozein pertsonarentzako dago irekia.

Deialdia pertsona fisikoei dago zuzendua eta bakarka nahiz taldean aurkeztu daiteke. Taldean aurkeztuz gero, kontaktuaz arduratuko den ordezkari bat izendatu behar da.

AURKEZTUTAKO LANEN EZAUGARRIAK

2. **Gaia:** aurkeztzen diren film laburrek ondareaz joratu behar dute. Zehazki, ondare kulturalaren igorpenaren inguruan, betiere ondare kulturala ikusmira orokor batetik harturik.

Ondare kulturala geure kulturaren parte da onarpen funtzioak, balorearen ezarpena, zainketa eta hura igortzen duten pertsonen adierazpen ezberdinak dituen heinean.

Halaber, ondarearen kontserbatu ahal izateko ezinbestekoa da hurrengo belaunaldiei transmititzea, izan ere, igorpen honek ondarearen onarpena eta honen zaintzaren eta babesaren inguruko sentsibilizazioa dakar.

Beraz, lehiaketan dauden lanen helburua belaunaldi ezbedinen elkargune izatea litzateke, hau da, film laburrak ondarearen babesean eta balorazioan lagunduko duen piezak izatea.

Era berean, lehiaketa honek gai honen inguruko hausnarketa berriak proposatzen dituzten eta ondarearen, bizirik eta eboluzioan dagoen nozio honen, komunikazio gaitasunak aktibatzen dituzten piezei emango die garrantzia.

Edonola ere, antolakuntzak, arrazoi tematikoak, legalak edo teknikoak direla-medio aproposak ez diren film laburrak ez onartzeko eskubidea du.

Unesco-ren arabera, hau da ondarearen definizioa:

Ondarea iraganetik datorkigun, orainean bizi dugun eta hurrengo belaunaldiei igorriko diogun oinordetza kulturala da.

Ondarea ez da monumentuetara eta objektuen bildumetara mugatzen. Geure arbasoengandik oinordetzan jaso ditugun adierazpenak ere badira, hots, ahozko ohiturak, erakuskizun arteak, erabilera sozialak, errituak, jaialdiak, naturaren eta unibertsoaren inguruko ezagutza eta praktika eta artisautza tradizionalaren inguruko jakintza eta praktika dira. Ondare kultural materiagabea edo bizirik dagoen

ondarea kultura aniztasuna mantentzeko faktore garrantzitsua ere bada.

3. **Iraupena:** gehienez 15 minutuko bideoak.
4. **Artxiboaren tamaina:** Artxiboa ezin da 5G baino handiagoa izan. Edozein kasutan, irabazleek film laburra proiektatu ahal izateko kalitatezko atxiboak eska daitezke.
5. **Sorkuntza originala:** autore bakoitzak film labur bat baina gehiago aurkeztu ditzazke, baina ezinbestekoa da hauek berriak izatea eta beste edozein lehiaketetan irabazi ez izana.
6. **Erantzukizun legala:** parte-hartzailea gauza ororen, film laburra barne, erantzule izango da, adibidez, beste autore batzuen argazkiak edo soinuak erabiltzearen erantzule. Beraz, beste autore batzuk edota haien ordezkari legalek azalpenak eskatuko balituzke, parte-hartzaileak haren kabuz eman beharko luke erantzuna. Antolakuntzak film laburraren eta honen edukiaren inguruko edozein erantzukizun legal ezeztatzen du.
7. **Hizkuntzak:** Film laburrak mutuak edo audioarekin izan daitezke. EAEko bi hizkuntza ofizialak kontuan hartu behar dira, euskara eta gaztelania; beharrezkoa da bi hizkuntza hauek film laburretan erabiltzea, audioan zein, beste edozein hizkuntza erabiliko balitz, azpigituluetan.

Honenbestez, testu bidez nahiz ahotsez, film laburrak bi hizkuntza ofizialak bildu behar ditu.

NOLA AURKEZTU LANAK

8. Ondarebiziako webgunean eskuragarri egongo den galdetegiaren bitartez. Galdetegi horretan, beste hainbat gauzen artean, sinopsi bat gehitu beharko da, gehienez 700 karakterekoa bai euskaraz bai gazteleraz.
9. Artxiboak artxibo handiak bidaltzeko plataformen bitartez bidal daitezke, *wetransfer* edota *filemail* kasu, bertako linka galdetegian bertan atxikitu beharko da.
10. Lanak banakakoak edo taldekoak izan daitezke, edozein kasuetan, bai banaka edo taldean, bi lan soilik aurkez daitezke.
11. Artxiboaren formatua mov edo mp4 erakoa izan behar da.

ERANTZUKIZUNA

12. Aurkezten diren lanetan erabilitako irudiak, aitorpenak edota iritziak ez dira ezinbestean antolatzaileenak. Ondorioz, ez dute hauekiko inongo erantzukizunik. Halaber, antolatzaileek hirugarren pertsona baten irudia, ohorea edota integritatea mindu ditzakeen lanak baztertuko ditu.

Egilea aurkeztutako lanaren eta edukiaren arduraduna izango da.

13. Ekoizpen eta hedapen eskubideak:

· Onartutako bideoen egileek Ondarebiziari irudien komunikazio eta birprodukzio eskubideak ematen dizkiote.

· Antolatzaileek lehiaketatik giza eskubideen urratzea, indarkeria, iraina, arrazismoa, sexismoa edo errespetu faltak dituen bideoak baztertzeko eskubidea biltzen dute; baita aldez aurreko baldintzak betetzen ez dituzten bideoak ere.

BIDALTZEKO ETA IZEN-EMATEKO EPEAK

14. **Film labur lehiaketan izen-emateko datak:** 2022ko Azaroaren 17ra arte. Egun bereko gaueko 23.59 arte onartuko dira proiektuak.

FILM LABURREN HAUTAKETA ETA SARIAK

15. Antolatzaileek aldez aurretik 8 film labur hautatuko dituzte, eta hauen egileei hautuaren berri emango zaie.

16. 8 film labur hauek lehiaketako azken fasera pasako dira, honako sari hauek ezarriz:

- **Film labur hoberenaren saria:** 500 euro eta irabazlearen diploma.
- **Ondarebizia saria:** Belaunaldien arteko begirada hobekien isladatzen duen lanarentzako 250 euroko Ondarebizia saria eta egiaztatari diploma.
- **6 ohorezko diploma.**

Hautatutako 8 film laburrak Museum Cemento Rezolak antolatutako agerraldi batean proiektatuko dira.

17. Epaimahaia kulturen eta zinean garrantzitsuak diren pertsonak osatuko dute, eta haien erabakia apela ezin da. Sariaren bat irabazle gabe uzteko eskubidea ere badute. Saridunen presentzia ezinbestekoa da sari-emate ekitaldian, pertsona horrek bertaratu ezin balu, irabazleek haien taldeko beste norbait izendatu beharko lukete saria jaso dezan.

18. Parte-hartzaileak aurkeztutako film laburrek legezko-erreklamaziorik ez dutela zaindu behar du.

19. Antolatzaileek oinarrien moldaketa egiteko eskubidea biltzen dute, aldatzekotan plazaratu egingo litzateke.

20. Lehiaketan parte-hartzeak, zuzenean, oinarrien onarpena eragiten du.

21. BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK

- Proposatutako gaira behar bezala egokitzea

ondarebizia@gmail.com

www.ondarebizia.com

- Film laburren eduki teknikoa
- Esperimentazioa. Ondare kulturalaren kontakizun berriak.
- Belaunaldi-arteko gai eta alderdiak. Pertsonen, belaunaldien arteko loturak.

AUZI OROKORRAK

22. Ez dira inola ere giza eskubideak edota balio demokratikoak errespetatzen ez dituzten film laburrak onartuko, ezta pertsona edo kolektiboekiko iraingarriak edota higuingarriak diren lanak ere.

23. Lehiakideek erantzukizuna hartzen dute aurkeztutako obretan hirugarren baten eskubideen menpe dauden musika-piezak ez erabiltzeko eta lanean agertzen diren pertsonen irudi-eskubideen ez egoteko; bai eta film laburrak inolako erreklamazio legalei loturik egoteaz eta jabego intelektuaren legediak dionarekin bat etortzeaz arduratu behar dira. Antolakundea edozein motako erantzukizunetik at utziz.

Lehiaketan parte hartzeak oinarri oro onartzea dakar.

DATU BABESA

24. Datuen Babespenerako Europako Araudi Berria (Europar Batasuneko RGPD 2016/679) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, zeina Pertsonen Datuen Babespenaz eta eskubide digitalen babespenaz orduraten den, kontuan edukiz, Ondareari Begira film labur lehiaketako partaideen datu pertsonalak Ondarebizia-ren datu basean bilduko dira, datu hauek solik lehiaketaren kudeaketaren helburuarekin erabiliko dira, eta ez zaizkio inolaz ere hirugarren bati pasako partaidearen baimenik gabe.

Halaber, edozein momentuetan, partaideak ondarebizia@gmail.com helbide elektronikoaren bitartez datuetara sarbidea eta hauen zuzenketa, aurkazitza eta deuseztapen eskubideak edukiko ditu.

Eragilea | Promueve:

**ONDARE
BIZIA**

K6
GESTIÓN CULTURAL

**Museum
Cemento
Rezola**

Babeslea | Patrocina



Kolaboratzailea | Colabora

ESCiVi
ONGI ETXEA SOKA ERABILTZAILEEN ETXETOKA DE ONI Y VIBES

ondarebizia@gmail.com

www.ondarebizia.com